

Erdialdeko Gaztegunea ixteko erabakiak ezustean harrapatu gaitu. Bizilagunen kekek aspaldikoak ziren arren, azkeneko sei urteetan udal gobernuak ez du sekula arazoa Udaleko bilera batera ere ekarri eta bizilagunek sinadura bilketa bat egin dutenean neurririk gogorrena hartu du: Udal zerbitzuaren ateak itxi. Ez baitigu balio lekuz aldatu duela esateak, Musakolako espazioak, egungo baldintzetan, ezin dituelako jaso Erdialdekoak jasotzen dituen erabiltzaile guztiak.

EH Bilduko zinegotzi taldekook aurreko astean izan genuen erabakiaren berri, Gazteria batzordean eta bilerako gai zerrendatik kanpo esan zigutenean. Bilera horretan azaldu ziguten halaber bizilagunek sinadurak jaso zituztela, udaltzain buruaren informe bat ere ekarri zuten... Ordura arte, txintik ere ez.

Urgentziazko bilera bat eskatu genion alkateari erabakia geratu eta gaia elkarrekin bideratzeko laguntza eskainiz.

Batetik, zerbitzua, Musakolakoan txertatu gabe, Erdialdeko beste lokalen batean kokatzeko aukera aztertzea planteatu genuen. Bestetik, zerbitzua kudeatzen duen elkartearen proposamena aztertzeko, jakin bagenekielako, Gazteria batzordean esan zutenez, bazuela planteamendu landu bat zerbitzuaren inguruan sortzen ziren arazo horiek kudeatzen saiatzeko. Eta, jakina, erabakia unilateralki hartu aurretik, komunikazioa lantzeko, edozein bizikidetzara arazo konpontzeko funtsezkoa baita soluzioa elkarrekin eraikitzea. Alde horretatik, ezinbesteko jotzen genuen neurriak kaltetzen zituen alde guztiekin hitz egitea, hala nola, erabiltzaileak eta euren familiak. Azpimarratu beharra baitago ez direla erabiltzaile guztiak bizilagunekiko errespetu falta eta portaera desagokoa dauzkatena. Erantzuna ezezko borobila izan zen, erabakia hartua zegoela.

Iruditzen zaigu EAJK – bere gobernu sozioa erabakitik desbinkulatu baita- neurri horren ondorioak baloratu gabe jokatu duela. Eta, gainera, udal arduradun bati dagokion erantzukizunari ihes eginez. Izan ere, bizilagunek kokoteraino egoteko motiboak izan zitzaizketela ukatu gabe, Udalaren

ardura da bere zerbitzuek sor ditzaketen arazoei konponbide bat ematea, baina betiere zerbitzuak mantentzeko lehentasuna emanaz. Udal zerbitzuak ez baitira kapritxoak sortzen, behar sozial bati erantzuteko baizik, eta zerbitzua itxiz gero behar horri erantzuteari ere uzten zaio.

Udal gobernu honek, baina, errazenera jotzen du behin eta berriz. Boteretik, indarretik, agintetik erabaki eta neurriak hartzen. Beno, hartzen edo inprobisatzen. Kontua suak itzaltzea baita, ahalegin horretan uholde bat sortzen badu ere. Gero gerokoak.

Alde horretatik, ezin larriagoa iruditzen zaigu egoeratik airoso ateratzeko kaleratu duen oharrean iragartzen duena. Lanbideren zerbitzua Gelma eraikinera aldatzen denean hark darabilen eraikinean jarriko duela Gaztetxokoa. Baina, baina, ea, Ubarretxena andrea eta konpainia, ea aklaritzen zareten! Ez zen, bada, Emakume Txokoa Lanbideren egungo eraikinera eraman behar zenuten udal zerbitzua? Eta, orduan, zein proposamen daukazu orain Emakume Txokoarentzat? Zein aurreikuspen ekonomiko zerbitzu baterako zein besterako 2021eko udal aurrekontuan ez baduzue proiektu horientzat zentimorik ere aurreikusi? Seriotasun apur bat, PNVko jaun-andreok, seriotasuna eta erantzukizuna.